

FUNDACIÓN EKAIN FUNDAZIOA
URTEKO KONTUEI BURUZKO KONTU IKUSKAPENEN
TXOSTENA 2015EKO EKITALDIA

FUNDACIÓN EKAIN FUNDAZIOA

**URTEKO KONTUEI BURUZKO KONTU IKUSKAPENENKO
TXOSTENA**

2015KO EKITALDIA



AUDYGE

AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL

URTEKO KONTUEN AUDITORIA-TXOSTEN INDEPENDENTEA

Ekain fundazioko patronatuari:

Urteko kontuei buruzko txostena

Ekain Fundazioaren urteko kontuak, atxikita doazenak, ikuskatu ditugu, hau da, sozietate horrek 2015ko abenduaren 31ko datan duen balantzea, irabazi eta galeren kontua, ondare garbian izandako aldaketen egoera, eskudiru-fluxuen egoera eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoria.

Patronatuko kideen erantzukizuna urteko kontuekiko

Patronatuko kideen egitekoa da atxikitako urteko kontuak egitea, eta, berariaz, urteko kontu horiek fideltasunez adierazi behar dute *Ekain Fundazioaren* ondarea, finantza-egoera eta emaitzak. Lan horretan, bete egin behar da erakundeak Espainian betetzeko duen finantza-informazioaren arau-esparrua, atxikitako memoriaren 2. oharrean adierazia, eta egoki irizten duen barne-kontrola ezarri behar du, urteko kontuak prestatzean akats materialik izan ez dadin, ez maulazkorik, ez errakuntzazkorik.

Kontu-ikuskatzailearen erantzukizuna

Atxikitako urteko kontuei buruzko iritzia ematea da gure egitekoa, gure ikuskaritza-lanean oinarrituta. Kontuen ikuskaritza arautzeko Espainian indarrean den araubidearen arabera egin dugu gure ikuskaritza-lana. Araubide horrek agintzen du etika-eskakizunak bete behar ditugula eta auditoriaren plangintza egin eta hura gauzatzean, arrazoizko ziurtasunez ondorioztatu behar dugula urteko kontuek ez dutela akats materialik.

Urteko kontuek adierazten dituzten zenbatekoen eta informazioen gaineko ikuskatze-ebidentziak lortzeko prozedurak bete behar ditu auditoriak. Auditore edo ikuskatzaileak hautatu behar ditu prozedurak, eta horien artean sartzen da urteko kontuen akats materialak, maulazkoak edo errakuntzazkoak izan daitezkeenak, baloratzeak. Arriskuaren balorazio horiek egitean, erakundeak urteko kontuak egiteko ezartzen duen barne-kontrolari erreparatzen dio kontu-ikuskatzaileak, egoera horren arabera prestatzeko ikuskatze- edo auditoria-prozedura egokiak, eta ez erakundearen barne-kontrolaren efikaziari buruzko iritzi bat emateko. Auditorian sartzen da, era berean, erabili diren kontularitza-politikak egokiak diren baloratzea eta zuzendaritzak egin dituen kontularitza-zenbatespenak arrazoizkoak diren aztertzea, baita, horrekin batera, urteko kontuen adierazpen orokorraren aurkezpena nolakoa izan den baloratzea ere.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentzia nahikoa eta egokia da gure auditoria-iritzia emateko.

Kontu-ikuskapeneko gure iritzian eraginik ez badu ere, azpimarratu nahi dugu erakunde fundatzaileen diru-laguntzek finantzatzen dutela funtsean Fundazioaren jardura. Horregatik, ezinbestekoa da etorkizunean laguntza horiek jasotzea jarduerak jarraituko badu.



Página 1 de 2



AUDYGE

AUDITORIA Y GESTIÓN EMPRESARIAL

Iritzia

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek *Ekain Fundazioak* 2015ko abenduaren 31n duen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela adierazten dute, haren garrantziko alderdi guztietan, eta, horrekin batera, urte horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzak eta eskudiru-fluxuak adierazten dituzte, finantza-informazioaren alorrean betetzekoa den arau-esparruak agintzen duen moduan, eta, berariaz, hark adierazten dituen kontularitzako printzipioak eta irizpideak aintzat hartuta.

Nabarmen paragrafoa

Kontu-ikuskapeneko gure iritzian eraginik ez badu ere, azpimarratu nahi dugu Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzek finantzatzen dutela funtsean Fundazioaren jardura. Horregatik, ezinbestekoa da etorkizunean laguntza horiek jasotzea jarduerak jarraituko badu.

Auditoria y Gestión Empresarial, S.L.
Kontu Ikuskatzaileen Erregistro Ofizialean
erregistratua, S0979 zenbakiarekin



Óscar Luis Hernando López
Donostia / San Sebastián, 2016eko ekainak 27



AUDITORIA Y GESTION
EMPRESARIAL S.L.

Año 2016 Nº 03/16/03490
COPIA

Informe de auditoría de cuentas sujeto
a la normativa de auditoría de cuentas
española o internacional

Auditoria y Gestión Empresarial, S.L. - Sociedad inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa con fecha 30-3-93, Tomo 1336 del Libro de Sociedades, Hoja SS-6642, Folio 90, Inscripción 1ª C.I.F. B-20443842 - inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas (R.O.A.C.) con el número S0979

Jausentzine

**EGOERA BALANTZEA
GALDU IRABAZIEN KONTUA**

EKAIN FUNDAZIOA

EGOERA BALANTZEA 2015 ETA 2014KO ABENDUAREN 31KO (Eurotan adierazia)

AKTIBOIA	Memoriak o oharrak	2015	2014	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Memoriak o Oharrak	2015	2014
A) AKTIBO EZ-ARRUNTA		8.424.768	8.560.589	ONDARE GARBIA		8.547.668	8.680.201
I. Ibilgetu ukiezina		288	542	ONDARE GARBIA	8	-41.354	-31.534
II. Ibilgetu materiala	5	8.423.932	8.550.649	Fondo propioak		18.000	18.000
Lursailak eta eraikuntzak		8.297.888	8.488.312	I. Gizarte Funtza			
Instalkuntza teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala		126.044	62.337	III. Erreserbak		27.660	27.660
Egite-bideko ibilgetua eta aurrerakinak		0	0	V. Aurreko ekitaldietako emaitzak		-77.194	-74.684
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	6	548	548	VII. Ekitaldiko Soberakina		-9.820	-2.510
Bestelako aktibo finantzarioak		548	548	A-III) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11	8.589.022	8.711.736
VI. Zerga geroratuen aktiboak			8.850				
B) AKTIBO ARRUNTA		233.399	158.423	PASIBO EZ ARRUNTA		0	0
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	6	207.932	78.368	IV. Zerga geroratuen pasiboak		0	0
Hainbat zordun		207.932	78.368	PASIBO ARRUNTA		110.498	38.811
Administrazio Publikoekiko bestelako hartzeak		25.466	80.055	III. Epe laburreko zorrak	7	77.235	2.494
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido balioak				Bestelako pasibo finantzarioak		77.235	2.494
				V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	7	33.263	36.317
				Hornitzaileak		33.203	36.257
				Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak		60	60
AKTIBOIA GUZTIRA (A+B)		8.658.166	8.719.012	ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZTIRA (A+B+C)		8.658.166	8.719.012

Erantsitako memorian adierazten diren 1etik 17ra bitarteko oharrak 2015ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Egoera Balantzaren zati dira

Erantsitako

Luis Telles

Ekain berri

EKAIN FUNDAZIOA

2015ko eta 2014ko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO EKITALDIKO GALDU-IRABAZIEN KONTUA
(Eurotan)

	Memoriako Oharrak	(Zor) Hartzeko 2015	(Zor) Hartzeko 2014
(Eurotan)			
Aktibitatearen sarrerak			
<i>Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak</i>		400.000	400.000
Aktibitatearen bestelako gastuak		-400.974	-402.555
Ibilgetuaren amortizazioa		-202.713	-197.572
Emaitzara eramandako subentzio, dohaintza eta legatuak		202.713	197.572
A.1) USTIAPENENKO EMAITZA		-974	-2.555
<i>Sarrera finantziarioak</i>		17	45
<i>Gastu finantziarioak</i>		-12	0
A.2) EMAITZA FINANTZIARIOA		5	45
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA		-970	-2.510
<i>Mozkinen Gaineko Zerga</i>		-8.850	
A.4) Emaitzaren soberakinaren aitortutako ondare garbiaren aldakuntza		-9.820	-2.510
B) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak eta gastuak			
<i>Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak</i>		80.000	40.000
<i>Zerga-efektua</i>			
B.1) Aitortutako galdu-irabaziengatik ondare garbiaren aldakuntza		80.000	40.000
C) Ekitaldiko soberakinaren birsailkapena			
<i>Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak</i>		-202.713	-197.572
<i>Zerga-efektua</i>			
D) Zuzenean egotzitako galdu-irabaziengatik ondare garbiaren aldakuntza		-202.713	-197.572
G) Ondare sozialean edo fundazionalean izandako aldakuntzak			
EMAITZA, ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA		-132.533	-160.082

Erantsitako memorian adierazten diren 1etik 17ra bitarteko oharrak 2015ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Egoera Galdu-Irabazien Kontua dira

Paigntelms

**2015KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO
EKITALDIKO MEMORIA**



Justizialari

1. oharra.- Fundazioaren jarduera

2004ko azaroaren 22an, Fundación Ekain Fundazioa izenarekin, Eusko Jurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Zestoako Udalak fundazio bat eratu zuten ekainaren 17ko 12/1994 Legearen eta indarreko gainerako xedapen arauemaileen arabera.

Fundazioa irabazi-asmorik gabe eratutako erakunde pribatua da, eta, bere fundatzaileen borondatez, ondarea iraunkorki loturik dauka interes orokorreko helburuak betetzera. Hala, Ondare Historikoa aztertzea, ezagutzea eta ezagutzera ematea, eta zehazkiago, Ekain haitzuloaren erreplika ("Ekain Berri") eta Zestoan kokaturiko historiaurreko museoa zuzentzea, kudeatzea, mantentzea eta sustatzea du helburu Fundazioak.

Horretarako, honako helburu hauek ezartzen dira:

- Ekain haitzuloaren erreplikaren ("Ekain Berri") eta Zestoan kokaturiko historiaurreko museoaren plan museologikoa eta museografikoa garatzea.
- Kultura-adierazpenak, ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak, liburuen edizioak, katalogoak eta antzeko ekintzak sustatzea eta burutzea helburu duten beste jarduera osagarri batzuk egitea.
- Fundazioaren jardueretan gizarte-ekimenaren finantzaketa eta parte-hartzea sustatzeko babes-plan bat garatzea.
- Fundazioaren berezko egitekoak gauzatzeko lagungarri izan daitekeen beste edozein.

2005eko irailaren 5ean Eusko Jurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak ebatzi zuen "Fundación Ekain Fundazioa" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan F-180 erregistro-zenbakiarekin inskribatzeko agintzea, eta fundazio hori, dituen helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan sailkatzea, kultura, gazteria eta kirol arloko fundazioen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa eta Babeslaritza antolatu eta jardunean jartzeko Arautegia onartzen duen urriaren 18ko 404/1994 Dekretuaren 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

2008. urteaz geroztik "Arazi Aranzadi UTE" sozietatea arduratzen da Ekainberri eraikina kudeatzeaz.

Fundazio hau ez da garrantzi ekonomikoduna kontsideratzen ez dituelako ekainaren 19ko 100/2007 dekretuaren 26.artikuluak dioen bi baldintza betetzen. Artikulu horietan Euskal Herriko Fundazioen Protektoratuaren Erregelamendua onartzen baita, jarraian doazen bi ekitaldietan, nahiz eta bere urteko kontuak kanpo ikuskaritzapean jarri.

2. oharra.- Fundazioaren urteko kontuak aurkezteko oinarriak

2.1. Irudi fidela.

Erantsitako 2015ko ekitaldiko urteko kontuak Fundazioaren 2015ko abenduaren 31ko kontabilitate-erregistroak abiapuntutzat hartuta formulatu dira. Kontu horietan Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duen 1491/2011 Errege Dekretuan jasotako kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak eta kontabilitate-alorrean indarrean dauden gainerako lege-xedapenak



Jaushtalain

aplikatu dira, eta Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusten dute.

Urteko kontu hauek, egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria eta memoria osatzen dituzten dokumentuetan bildutako kopuruak eurotan adierazita daude, dezimalik gabe biribilduta.

Ez dago salbuespeneko arrazoirik irudi fidela erakustearren kontabilitate arloko lege-xedapenik ez aplikatzeko.

Erantsitako urteko kontuak patronatuaren batzarrari aurkeztuko zaizkio onartzeko. Aurreikuspenen arabera aldaketarik gabe onartuko ditu.

2.2. Aplikatutako nahitaezkoak ez diren kontabilitate-printzipioak.

Erantsitako finantzen egoera-orrietan eragin esanguratsua duten nahitaez aplikatzeko kontabilitate-printzipio eta arau guztiak hartu dira kontuan. Ez dago aplikatu gabe utzi den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

2.3. Ziurgabetasuna baloratzearen eta estimatzearen alderdi kritikoak.

Fundazioak funtzionamenduan dagoen erakundearen printzipioari jarraiki landu ditu finantzen egoera-orriak, eta ez dago hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik ekar dezakeen inongo arrisku garrantzitsurik.

Erantsitako urteko kontuetan, noiz edo noiz, patronatuko kideek bertan erregistratuta ageri diren aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso batzuk kuantifikatzeko egin dituzten estimazioak erabili dira. Funtsean, estimazio horiek aktibo materialen balio-bizitzaren estimazioari dagozkio nagusiki.

Litekeena da, estimazio horiek urteko kontu hauek formulatu ziren datan aztertutako egintzei buruz erabilgarri zegoen informazio onenaren arabera egin baziren ere, etorkizunean horiek hurrengo ekitaldietan aldatu beharra (gorantz edo beherantz) ekarriko duten gertakariak izatea. Hori modu prospektiboan egingo litzateke, estimazio-aldaketaren ondorioak dagozkien etorkizuneko galdu-irabazien kontuetan aitortuta.

2.4. Informazioa konparatzea.

Kontabilitate Planean ezarritako betebeharraren ondorioetarako, eta uniformetasun-printzipioa eta konparagarritasun-baldintza aplikatzeak dakartzan ondorioetarako, 2015ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurreko ekitaldikoekin batera aurkezten dira.

2.5. Hainbat kontusailetan jasotako elementuak.

Ez da aurkeztu balantzeko bi kontusailetan edo gehiagotan erregistratutako elementurik.



Justitela

2.6. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketak.

Ekitaldian ez da aldaketarik izan kontabilitate-irizpideetan.

2.7. Akatsen zuzenketa.

2015ko ekitaldiko urteko kontuetan ez dago ekitaldian hautemandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

3. oharra.- Ekitaldiko soberakina

2015ko ekitaldiari dagokion soberakina banatzeko proposamena, Fundazioaren patronatuaren batzarrak egina, honakoa da:

Banaketa-oinarria	
Ekitaldiko soberakina	-9.820
Guztira	-9.820
Banaketa	
Aurreko ekitaldietako soberakinak	-9.820
Guztira	-9.820

4. oharra.- Erregistro eta balorazio arauak

Fundazioak 2015ko ekitaldirako urteko kontuak indarrean dagoen legeriaren arabera lantzeko erabili dituen balorazio-arau nagusiak honako hauek izan dira:

4.1. Ibilgetu material eta ukiezina.

Ibilgetu material eta ukiezina erosketakostuan baloratuta dago, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne (4.5. oharra).

Konpontzeko eta kontserbazio lanen gastuak egiten diren ekitaldiko emaitzen kargura erregistratzen dira.

2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, erreplika eraikitze lanak amaitu eta 2008. urte-amaieran ustiatzen hasi ondoren, Ekainberri eraikina amortizatzen hasten da, 50 bat urteko aldi baterako. Ekainberri eraikina eraikitze lanak erakunde publikoek emandako kapitaleko diru-laguntzekin finantzatu direnez oso-osorik, diru-laguntza horiek emaitzei egotziko zaizkie eraikinaren amortizazioaren epealdi berean.

2013ko ekainaren 1etik aurrera, Lili Jauregiaren erreforma amaitu ondoren, Historia Aurreko Museko bezala ustiatzen hasi ondoren, amortizatzen hasten da, 50 urteko aldi baterako. Hau eraikitze lanak erakunde publikoek emandako kapital diru-laguntzekin finantzatu direnez oso-osorik, diru-laguntza horiek emaitzei egotziko zaizkie eraikinaren amortizazioaren epealdi berean.



Sanjose

4.2. Finantza-tresnak.

Fundazioak mugaegunaren arabera sailkatzen ditu zorrak. Ildo horretan, epe laburrerako zortzat jotzen ditu 12 hilabetetik beherako mugaeguna duten zenbatekoak.

a) Finantza-aktiboak:

Finantza-aktibo bat eskudirua edo beste enpresa baten ondare-tresna den edozein aktibo da, edo eskudirua edo beste finantza-aktibo bat jasotzeko, edo hirugarrenekin finantza-aktiboak edo -pasiboak baldintza potentzialki onuragarrietan trukatzeko kontratuko eskubidea ekartzen duen edozein aktibo.

Sozietatearen finantza-aktiboen balorazioa honako sailkapen honen arabera egingo da:

Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honetan erregistratzen dira kutzako eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko beste inbertsio batzuk, kutxan bizkor gauza daitezkeenak eta balioa aldatzeko arriskurik ez dutenak.

Kobratzeko dauden maileguak eta kontusailak

Epe laburrerako mugaeguna dutenak eta kontratuko interes-tasarik ez dutenak, langileentzako aurrerakinak eta kredituak, kobratzeko dibidenduak eta ondare-tresnen gainean exijitutako ordainketak balio nominalaren arabera baloratuko dira.

b) Finantza-pasiboak:

Jaulkitako, izandako edo bere gain hartutako finantza-tresnak finantza-pasibo gisa sailkatuko dira, oso-osorik edo zati batean, baldin eta horien errealitate ekonomikoaren arabera enpresarentzat eskudirua edo beste finantza-aktibo bat entregatzeko, edo hirugarrenekin finantza-aktiboak edo -pasiboak baldintza potentzialki kaltegarrietan trukatzeko kontratuko betebeharra, zuzeneko edo zeharkakoa, ekartzen badu.

Sozietatearen finantza-pasiboen balorazioa honako sailkapen honen arabera egingo da:

Ordaintzeko zorrak eta kontusailak

Epe laburrerako mugaeguna duten eta kontratuko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketen ondorio direnak eta hirugarrenek partaidetzen gainean exijitutako ordainketak, zeinen zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero baita, balio nominalaren arabera baloratuko dira.



Handwritten signature: Jausotellans

4.3. Balio Erantsiaren gaineko Zerga

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arautegiaren 13. artikulua araberan, Fundazioa zerga horren salbuespena biltzen da. Hala, zergapetutako eragiketen xede diren inbertsio-ondasunen edo zirkulatuzailearen eta zerbitzuen erosketa-prezioaren parte da jasandako BEZa (9. oharra).

4.4. Sozietateen gaineko Zerga

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauari loturik dago Fundazioa. Fundazioak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita ditu erakundearen xedeetan laguntzeko jasotako emarien eta dohaintzen ondorioz lortutako errentak, ondare-zuzkiduraren kontzeptupeko ekarpenak eta dohaintzak barne; bazkideek, laguntzaileek eta ongileek ordaindutako kuotak; diru-laguntzak; erakundearen ondare higigarritik eta higiezinetik datozen errentak, hala nola sozietateen mozkinetako partaidetzak eta dibidenduak, interesak, kanonak eta alokairuak; ondasunen edo eskubideen edozein titulupeko erosketen edo eskualdatzeen ondorio diren errentak; eta, zerga-araudiaren arabera, erakundeari egozten zaizkionak eta salbuetsitako aurreko errentaren batetik datozenak.

Sortutako gainerako errentek 3/2004 Foru Arauaren 12. artikulua araberan ordainduko dute zerga: % 10eko zerga-tasan.

4.5. Sarrerak eta gastuak.

Sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hots, ordezkaten dituzten ondasun eta zerbitzuen korrante erreala gauzatzen denean, horien ondorio den diru-edo finantza-korrantea gauzatzen den unea gorabehera.

Alabaina, ziurtasun printzipioari jarraiki, Fundazioak ekitaldiaren itxiera-datan egindako mozkinak besterik ez ditu kontabilizatzen, eta aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, are balizkoak ere, horien berri izan bezain laster kontabilizatzen dira.

4.6. Ingurumen-izaerako ondare-elementuak.

Babesleek baieztatu dute Fundazioak ez duela bere ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eraginik izan dezakeen ingurumen alorreko erantzukizunik, gasturik, aktiborik, diru-hornidurarik edo kontingentziarik.

4.7. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak.

Itzuli beharrik gabeko kapitaleko diru-laguntzak emandako zenbatekoaren arabera baloratzen dira. Hasieran, ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrera gisa aitortzen dira eta emaitzei egozten zaizkie diru-laguntza horiek finantzatu dituzten aktiboek epealdian izan duten balio-galeraren proportzian, balio-galerarik ez duten aktiboak direnean izan ezik, kasu horretan besterentzen diren edo inbentarioan baja ematen zaien ekitaldiko emaitzari egotziko baitzaizkio.



Justifikatzen

5. oharra.- Ibilgetu material eta ukiezina

2015ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu material eta ukiezinen kontuetan izandako mugimendua honako hau izan da:

UKIEZINA	Jabego Industriala	Amortizazioak	Guztira
KOSTUA			
15-01-01eko saldoa	1.016	474	542
Gehitzeak		254	(254)
Eskualdatzeak			0
15-12-31ko Saldoa	1.016	728	288

	Uneko ibilgetua	Eraikinak eta eraikuntzak	Bestelako ibilg.	Amortizazioak	Guztira
KOSTUA					
15-01-01eko saldoa	0	9.508.374	80.460	1.038.186	8.550.648
Gehitzeak			75.742	202.458	(126.716)
Eskualdatzeak					0
15-12-31ko saldoa	0	9.508.374	156.202	1.240.644	8.423.932

2014ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu material eta ukiezinen kontuetan izandako mugimendua honako hau izan da:

UKIEZINA	Jabego Industriala	Amortizazioak	Guztira
KOSTUA			
14-01-01eko saldoa			0
Gehitzeak	1.016	220	796
Eskualdatzeak		254	(254)
14-12-31ko Saldoa	1.016	474	542

	Uneko ibilgetua	Eraikinak eta eraikuntzak	Bestelako ibilg.	Amortizazioak	Guztira
KOSTUA					
14-01-01eko saldoa	0	9.508.374	42.472	840.868	8.709.978
Gehitzeak			37.988	197.318	(159.330)
Eskualdatzeak					0
14-12-31ko saldoa	0	9.508.374	80.460	1.038.186	8.550.648



Jusitellais

2008ko azaroaren 26an, Zestoako Udalak eta Ekain Fundazioak akordio bat sinatu zuten. Horren arabera, Zestoako Udalak finka baten gaineko azalera-eskubidea eratuko du Fundazioaren alde, "Ekain haitzuloaren erreplika (Ekainberri)" eraikitzeko.

Azalera-eskubideak 75 urteko iraupena izango du, eraikuntza-eskritura Jabetza Erregistroan inskribatzen den egunetik hasita.

Epe hori amaitzen denean, eraikitakoa Zestoako Udalaren ondarean integratuko da, Fundazioak lurzoruaren jabetza eskuratzen ez badu behintzat.

Fundazioak, bere aldetik, konpromisoa hartu zuen deskribatutako orubearen gainean "Ekain haitzuloaren erreplika (Ekainberri)" hartuko duen eraikin bat eraikitzeko.

Kontratu horrek aztergai duen azalera-eskubidea doan lagako da. Egun horretan bertan, halaber, hitzartu zuten Lili jauregiaren jabetzako lurren erabilera Zestoako Udalak Fundación Ekain Fundazioari 75 urtez lagatzea eta eskualdatzea. Erabilera-lagapen horren prezioa 162.994 euro da eta Zestoako Udalak adierazi du zenbateko hori jaso duela, Fundación Ekain Fundazioaren egintzaren aurretik, banku-txeke baten bidez, eta jasotakoan erabateko ordainketa-gutuna eman duela.

6. oharra.- Finantza-aktiboak

Sozietatearen balantzearen aktiboko finantza-tresnen informazioa, kategorien arabera sailkatua, honako hau da:

2015	Epe luzera	Epe laburrera
Kategoriak/Motak	Kredituak eta bestelakoak	
Kobratzeko maileguak eta kontusailak	548	207.932
2014	Epe luzera	Epe laburrera
Kategoriak/Motak	Kredituak eta bestelakoak	
Kobratzeko maileguak eta kontusailak	548	78.368

Epe laburrean kobratzeko maileguak eta kontusailak:

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honetan 2015ko abenduaren 31n emanda eta kobratzeko dauden diru-laguntzen zenbatekoa erregistratzen da batik bat. Hona hemen xehetasuna:



Justelena

Deskribapena	Saldo zordunak
Eusko Jaurlaritzza, diru-laguntzengatik zorduna	40.000
Gipuzkoako Foru Aldundia, diru-laguntzen ondoriozko zordun	167.932
	207.932

7. oharra.- Finantza-pasiboak

Sozietatearen balantzearen pasiboko epe laburrerako finantza-tresnak, kategorien arabera sailkatuak, honako hauek dira:

Kategoriak/Motak	Hartzekodunak eta bestelakoak	
	2015	2014
Ordaintzeko zorrak eta kontusailak	110.498	38.811

Epe laburrean ordaintzeko zorrak eta kontusailak:

Epigrafe honetan egindako zerbitzuen ondorioz Fundazioaren hartzekodunei ordaintzeko dauden saldoak erregistratzen dira.

8. oharra.- Funts propioak

Funts propioen kontuek 2015ko ekitaldian izan duten mugimendua honako hau izan da:

	Gizarte-funtsa	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako soberakinak	Ekitaldiko soberakina	Guztira
15-01-01eko saldoa	18.000	27.660	-74.684	-2.510	-31.534
Gehitzeak				-9.820	-9.820
Eskualdatzeak			-2.510	2.510	0
15-12-31ko saldoa	18.000	27.660	-77.194	-9.820	-41.354

Fundazio-zuzkidura

2015ko abenduaren 31n, Fundazioaren fundazio-zuzkidura hura eratu zen egunean (2004ko azaroaren 22a) fundatzaileek egin zituzten hasierako ekarpenek osatzen dute.



Jausibelene

Aurreko ekitaldietako soberakinak

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe honek aurreko ekitaldietako emaitza metatuak jasotzen ditu.

9. oharra.- Zerga-egoera

Memoria hau egin dugun datan, zerga-agintariek ikuskatzeko irekita daude Fundazioaren azken lau ekitaldiak, bere jarduera zergapetzen duten zerga guztietarako.

Fundazioa salbuetsita dago Balio Erantsiaren Zergatik (BEZ). 2005eko irailaren 5ean zentsu-aitorpena aurkeztu zuen, Balio Erantsiaren Zergari buruzko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 20. artikulua arabera salbuetsita dauden erägiketak besterik egiten ez dituela adierazteko.

Halaber, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak ezartzen duen moduan, Fundazioak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita ditu erakundearen xedeetan laguntzeko jasotako emarien eta dohaintzen ondorioz lortutako errentak, ondare-zuzkiduraren kontzeptupeko ekarpenak eta dohaintzak barne; bazkideek, laguntzaileek eta ongileek ordaindutako kuotak; diru-laguntzak; erakundearen ondare higigarritik eta higiezinetik datozen errentak, hala nola sozietateen mozkinetako partaidetzak eta dibidenduak, interesak, kanonak eta alokairuak; ondasunen edo eskubideen edozein titulupeko erosketen edo eskualdatzeen ondorio diren errentak; eta, zerga-araudiaren arabera, erakundeari egozten zaizkionak eta salbuetsitako aurreko errentaren batetik datozenak.

Zerga-agintariek Fundazioarentzat ikuska daitezkeen ekitaldi guztiak berrikustearen ondorioz etorkizunean erator litezkeen pasiboak eta zerga-kontingentziak ezin dira objektibotasunez zehaztu. Alabaina, zuzendaritzaren iritziz, erator litekeen pasiboak ez luke eragin esanguratsurik izango erantsitako finantzen egoera-orrietan, eta, horrenbestez, ez da pasibo eta kontingentzia horiei aurre egiteko inongo hornidurarik erregistratu.

10. oharra.- Sarrerak eta gastuak

A) Sarrerak

Bestelako sarrerak- Ustiapeneko diru-laguntzak: 400.000 euro

2015ko martxoaren 12an, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen Fundazioari 400.000 euroko diru-laguntza ematea Ekain Berriko plan museografikoa, jarduera osagarriak eta Fundazioa babesteko 2015ko plana garatzeko.

B) Gastuak

Kanpoko zerbitzuak: 400.974 euro



Jaushtelbue

Epigrafe honetan "Arazi Aranzadi UTE" enpresa kontratatzearen ondorio diren gastuak erregistratzen dira batik bat. Kontratazio horrek Ekainberri eraikina kudeatzea du helburu. 2015ko ekitaldian fakturazioa 383.315 eurokoa izan da (BEZ barne).

11. oharra.- Jasotako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Egoera-balantzearen epigrafe honek 2015eko ekitaldian izan duen mugimendua honako hau izan da:

Kapitaleko diru-laguntzak

14-12-31ko saldoa	8.711.735
Gehitzeak	80.000
Egoztearen ondoriozko bajak	(202.713)
15-12-31ko saldoa	8.589.022

Kapitaleko diru-laguntzak

2004ko, 2005eko, 2006ko eta 2007ko ekitaldietan Fundazioak kapitaleko lau diru-laguntza jaso zituen Gipuzkoako Foru Aldunditik, 454.000, 1.264.050, 1.500.000 eta 3.100.000 eurokoak, hurrenez hurren, Ekainberriren eta Zestoako Historiaurreko Museoaren plan museologikoa eta museografikoa garatzeko, kultura-adierazpenak, ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak, liburuen edizioak, katalogoak eta antzeko ekintzak sustatzea eta burutzea helburu duten beste jarduera osagarri batzuk egiteko eta, azkenik, Fundazioaren jardueretan gizarte-ekimenaren finantzaketa eta parte-hartzea sustatzeko babes-plana garatzeko.

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, 2004ko, 2005eko, 2006ko eta 2007ko ekitaldietan 140.000, 700.000, 750.000 eta 710.000 euroko diru-laguntzak eman zizkion Fundazioari Ondare Historikoa aztertzea, ezagutzea eta ezagutzera ematea sustatzeko egin behar izan dituen inbertsioak ezartzeko eta hobetzeko.

2008ko, 2009ko eta 2010eko ekitaldietan, Eusko Jaurlaritzak 200.000 euroko, 300.000 euroko eta 500.000 euroko diru-laguntzak eman zizkion Fundazioari kontzeptu bererako, Eusko Jaurlaritzaren eta Fundación Ekain Fundazioaren artean 2008ko abenduaren 30ean sinatutako akordioa oinarri hartuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza garrantzitsuak ematen dizkiote urtero Fundazioari Zestoan kokatutako Ekain haitzuloaren erreplikari ("Ekain Berri") eta historiaurreko museoan egin beharreko inbertsioak finantzatzeko. Obra horiek hurrengo urteetan gauzatu eta justifikatzen dira neurri handi batean.

Eusko Jaurlaritzak 140.000 euroko zuzeneko diru-laguntza bat eman zion 2004ko ekitaldian eratzeko bidean zegoen Fundazioari. Fundazioak 2006ko martxoan jaso zuen zenbateko hori, baina gaur egun ez du horri buruzko egiaztagiririk aurkeztu.



Jaispeitena

Fundazioak diru-laguntzak emaitzei egozteko erabiltzen duen irizpidea diruz lagundutako inbertsioak kontabilitatean amortizatzen dituen heinean sarrera erregistratzean datza (4.6. oharra).

12. oharra.- Entitatearen helburu soziala. Ondare-elementuak helburu propioetara aplikatzea. Administrazio-gastuak.

Jarduera

2015an egindako jarduerak honakoak dira:

Ekainberriko Jarduerarekin aurrera egitea. 2008an Zestoako Ekain Haitzuloko Erreplika ireki zen jendearentzat. Ekain Fundazioak erreplikaren jarduerarekin jarraituko du 2015 urtean ere.

Ekainberriko ekipoak berritzen jarraitzea. Ekainberriko erakusgelan matxuratuta dauden ekipoak berritu dira.

Lili jauregiaren jarduera aurrera egin du. 2015 Irekita mantendu da, Lili jauregiaren bisita antzetzuz, urtarrilatik martxoarte bi hilabete izan ezik, antzezpen teatrala berritzeko erabili direlako. Irudikapen berria, "El honor de Lili", Aste Santua baino egun batzuk lehenago hasi zen.

Lili Jauregia egokitzen eta konpontzen jarraitu da. 2015eko urtarrilean argiteria instalazioa eta hezetasun kengailuaren konponketa amaitu ziren Lili Jauregian.

Ekainberriko estalkiaren iragazgaiztearen konponketa. Obrako lehen zatia egin da.

Jardunararen onuradunak edo erabiltzaileak: 29.040 pertsona fisikoak.

Ondare-elementuak xede propioei aplikatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 30. artikulua arabera, Fundazioaren sarrera garbien % 70 gutxienez fundazio-borondateak zehaztutako xedeak gauzatzera zuzendu beharko da, eta gainerakoa fundazio-zuzkidura handitzera, administrazio-gastuak kendu ondoren. Artikulu honek aztergai dituen errenta edo sarreraren proportzioaren xedea lortzen direnetik hasi eta hiru urteko epean gauzatu ahal izango du Fundazioak.

Fundazioak 2015ko ekitaldian lortutako errenten xedea honako hau da:



FUNDACIÓN EKAIN FUNDAZIOA
2014eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko memoria

Justintze

SARRERAK	2015	2014
<i>Berezko jardueraren ondoriozko erakundearen sarrerak</i>		
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	400.000	400.000
Ibilgetuko diru-laguntzak egoztea	202.713	197.572
Bestelako interesak eta sarrera parekatuak	17	45
Guztira	602.730	597.617
FUNDAZIO XEDEETARA ZUZENDUA		
Bestelako ustiapen-gastuak	400.974	402.555
Amortizazioak	202.713	197.572
Finantza-gastuak	12	0
Beharrezko gastuak guztira	603.699	600.127
Administrazio-gastuak	3.310	5.082
Sarrera garbiak	2.341	2.572

Fundazioak lortutako sarrera garbien % 100 zuzendu du fundazio-borondateak zehaztutako helburuak betetzera.

Administrazio-gastuak

2015ko ekitaldian Fundazioak 3.310 euroko administrazio-gastuak izan ditu, kontabilitate-kudeaketaren ondorio izan direnak.

Aurrekontuaren likidazioa

a) Jardueran erabiliko diren baliabide ekonomikoen aurreikuspena eta benetakoak:

GASTUAK / INBERTSIOAK	Aurreikusia	Egina	Desbideratzea
Ustiapen gastuak	381.600	383.315	- 1.715
Jardueraren beste gastu batzuk	18.400	17.659	741
Iblegetua amortizatzea	204.459	202.713	1.745
Finantza-gastuak		12	- 12
Irabazien gaineko zergak		8.850	- 8.850
Gastuen guztizko partzialak	604.459	612.550	- 8.091
Ibilgetua eskuratzea	80.000	75.742	4.258
Inbertsioen guztizko partziala	80.000	75.742	4.258
Guztira	684.459	688.292	

b) Erankundeak lortu beharreko guztizko baliabide ekonomikoen aurreikuspena eta benetakoak.



SARRERAK / BESTE BALIABIDE BATZUK	Aurreikusia	Egina	Desbideratzea
Sektore publikoko diru-laguntzak	604.459	602.713	1.745
Finantzetako diru-sarrerak	-	17	17
Lortu bearreko diru-sarriren aurreikuspena guztira	604.459	602.730	1.729
Inbertsiorako diru-laguntzak	80.000	80.000	-
Lortutako beste baliabide batzuk guztira	80.000	80.000	-
Guztira	684.459	682.730	

13. oharra.- Lotutako alderdiekiko eragiketak

Lotutako alderdiekiko transakzio bakarrak aurreko oharretan azaldu eta zehaztu diren babesleek emandako ustiapeneko diru-laguntzei dagozkie.

14. oharra.- Bestelako informazioa

Fundazioaren patronatuari buruzko informazioa

Fundazioaren patronatuak osaera hau du 2015ko abenduaren 31n:

Gipuzkoako Foru Aldundia. Kultura eta Euskara Departamentuko foru-diputatu Denis Itsaso González jauna (lehendakaria) eta Kultura Ondarearen zuzendari nagusi Maria José Tellería Etxeberria andrea (idazkaria) izango ditu ordezkari.

Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburu Cristina Uriarte Toledo andrea eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Ondarearen zuzendari Imanol Agote Alberro jauna izango ditu ordezkari.

Zestoako Udala. Zestoako Udaleko alkate José Francisco Mendizabal Irigoien jauna izango du ordezkari.

Patronatuko kideek ez dute ordainsaririk jasotzen. 2015ko abenduaren 31n ez dago indarrean patronatuko kideei emandako aurrerakinik edo krediturik, ezta pentsioen edo bizi-aseguruen arloko obligaziorik ere.

Halaber, ez dago inongo kontratu-harremanik patronatuko kideen eta Fundazioaren artean.

Ingurumenari buruzko alderdiak

Fundazioaren jarduera dela-eta, ez du bere ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eraginik izan dezakeen ingurumen arloko erantzukizunik, gasturik, aktiborik, diru-hornidurarik edo



Erantzulea

kontingentziarik. Horregatik, memoria honetan ez da jaso ingurumen-gaien informazioari buruzko berariazko banakatzerik.

15. oharra.- Ekitaldia itxi ondorengo gertaerak

Ez dago ekitaldia itxi ondorengo gertaerarik, ekitaldiaren itxiera-datan zeuden inguruabarrak nabarmentzen dituenik, eta erregistro- eta balorazio-araua aplikatzearen ondorioz, urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuetan bildutako zifretan doikuntzaren bat sartzea ekarri duenik edo erantsitako urteko kontuetan doikuntzarik ekarri duenik, nahiz eta memorian bildutako informazioa gertaera horren arabera aldatu behar izan edo gertaera horiek urteko kontuen erabiltzaileen ebaluazio-ahalmenari eragiteko moduko garrantzia izan.

Ez dago funtzionamenduan dagoen erakundearen printzipioaren aplikazioan eragina duen ekitaldia itxi ondorengo gertaerarik.

16. Oharra - Hornitzaileei egindako ordainketa geroratuei buruzko informazioa. Uztailak 5eko 15/2010 legearen, "Informazio obligazioa", hirugarren xedapen erantsia.

Ordaintzeko batez besteko epea 55 egunetakoa da.

17. oharra. Inbentarioa

2015ko abenduaren 31n fundazioaren inbentarioaren laburpena ondorengoa da:

	Deskribapena	Amortizazioak	Guztiak
Marka eta patenteak	1.016	728	288
Ekain Berri kobazuloaren erreplika	8.112.790	1.135.471	6.977.319
Oinezkoen bidea	48.142	5.319	42.823
Lili Jauregiaren museoa	1.347.442	69.698	1.277.744
Beste instalazio batzuk	116.937	8.414	108.523
Altzariak	1.634	175	1.459
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	37.632	21.655	15.977
Fiantzak	548		548
Kutxako kontu korrontea	25.466		25.466
14-12-31ko Saldoa	9.691.606	1.241.460	8.450.146

Urteko kontu hauei erantsitako dokumentuan, data beran, xehetasun guztiak dituen inbentarioa aurkezten da.

Fundación Ekain Fundazioaren patronatuak urteko kontuak formulatu eta onartu ditu. Egoera-balantzeak, galdu-irabazien kontuak, ondarean izandako aldaketen egoera-orriak, memoria ekonomikoak, 2015eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren likidazioak eta jardueren memoriak osatzen dituzte urteko kontu horiek. Kide guztiek orri hau sinatu dute, ados daudela adierazteko. Patronatuko idazkariak, era berean, adierazitako dokumentuen orrietariko bakoitza sinatu du, identifikazioaren ondorioetarako.

Sinadura
Lehendakaria


Denis Itsaso González
Gipuzkoako Foru Aldundia


Sinadura

Cristina Uriarte Toledo andrea
Eusko Jaurlaritza

Sinadura
Idazkaria


Maria José Tellería Etxebarria
Gipuzkoako Foru Aldundia


Sinadura

Imanol Agote Alberro jauna
Eusko Jaurlaritza

Sinadura

José Francisco Mendizabal Irigoien
Zestoako Udala



Donostia / San Sebastián, 2016ko ekainaren 24an